



**JOSE IGNAZIO  
ANSORENA**  
TXISTULARIA

## Urte berri goiza

**U**rte berri goiza Joxe Ansorenak, gure aitona Isidroren anaiak, sortutako biribilketa baten izenburua da, urteberri goizean txistulariek kalez kale jo zezaten asmatua. Doinu horren airean, gaueko kondarrak bilduz joaten ginen, zabor kamioiak bezala. Behin, *Sakito* mozkor galanta aurre-aurrean jarri zitzaidan bidean oztopo eginez. Gelditu, txistua ahotik kendu eta *Fuuuu*, putz egin nion muturrean: "Hurrengoan superboteereekin egingo diat", bota nion serio demonio. Sinetsi eta baztertu egin zen.

Telebistan *rave* famatuen berriek hurren gogoratu: "Hau bezalakorik! Zazpi egun daramatzagu dantzan". Dantza zeri esaten zaion. Haiena, talko hauts, tripi-txo, estasi edo meta guztien laguntza izan arren, ezinaren kulunka errepikakor baldar eta zozoa besterik ez zen.

Umetan, etxean asko izan eta birramona Generosaren ohe berean egiten nuen lo. Etxe azpiko Plaza Berrian mozkorrak entzuten genituenean, euri hotza eta haizea zebiltzala, belarrira xuxurlatzen zidan: "Igualeko ederki gaude". Orduan ez nion ulertzen. Orain bai, ordea. Amonak jakintsuak baitira bizitza eta olgeta kontuez. Etxe ondoko Doroteak biloba neskak berbenara joaten zirenean, horrela agurtzen zituen: "Ongi pasa neskak, baina kartutxera itxita". Fustiñanako Fermina, aldiz, esplizituagoa zen: "*Pasadlo bien, majas... Pero no folléis*".

Natorren harira. Hori dena Urteberriaren iritsiera ospatzeko. Baina urteberriek berritik oso gutxi izaten dute. Hain gutxi ere, non dagoeneko urtarrilaren erdian, 2025a maiztuta dagoen. Gelditu al dira Gaza edo Ukrainako gerrak? Neurrigabeko aberatsek onartu al dute euren ondasun metaketaren jatorrian lapurreta dagoela eta prest agertu arpilatutako mordoak banatzeko? Emakume eta adin txikikoeke biolentzia amatatu al da? Etorkinak besoak zabalik hartzen hasi al gara? Ez al dugu jada gure festen oinarrian alkohol, zarata eta zarama gehiegi jartzen? Zorri piztuak ez al dira dagoeneko okerrenak?

"Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zarratada handiago egingo bailuke". Mateoren ebanjelioko parabola da. Horixe egin beharko: *Urte berri goiza* jotzen hasi aurretik, partxe txiki eta eskas batzuk jarri zorterik ote dagoen probatzeko. Esaterako, Euskal Herriko Irrintzilari Elkarte berriaren gidaritzapean, kanpaien hotsen orde, irrintzika agurtu urtezaharrak eta berriak. *Sakitok* iritzia: ados, baina aurretik eta ondoren, zurrutadaka galanki eginez.

Esnif... Adimen naturala adabakiak jartzeko ere eskas geratzen denez, artifizialarekin probatu beharko. Ez da beste aukerarik. Baztandarren eran esateko: **doike**. ●



**LEIRE NARBAIZA**  
IRAKASLEA

## Eskuak

**E**skua bularrera eroan, eta bostekoa ukatu dio Siriako agintari berriak Alemaniako Kanpo Arazoetarako ministroari, ministro emakumeari. Modu adeitsuan, baina arbuioa jasan du Analena Baerbock-ek. Aurretik, Al-Golani siriarrak, ordea, luzatu eta astindu dio eskua Jean-Noel Barrot Frantziako Kanpo Arazoetarako ministroari, ministro gizonari. Alemaniara eskuekin zer egin ez dakiela geratu da, ahurrak elkartu eta zerurantz daramatza, adostasun keinu bat eginda, urduri.

Ongietorrian beste hiru gizon ere badaude. Batek ere ez die eskua eman ez

frantsesari, ez alemaniarrari. Hirurek eroan dituzte eskuak bularrera. Guztiak oinez abiatu dira bilera gelara. Atzean lagun andana doa, segizioan. Talde erraldoi horretan, emakume bakarra, interpretea.

Protokolo arduradunek ez zuten aurreikusitako Al-Golani islamistak ez ziola eskua emango Baerbocki? Agintari berriak ezin zezakeen egin beste hiru kideek lez, eta ministro biei bostekoa ez luzatu?

Argi dago Al-Golanik nabarmen laga nahi zuela bere jarrera. Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia. Noiz arte jasango ditugu emakumeok mespretxu horiek isilean? ●